

**2015EKO OTSAILAREN 12KO OSOKO
BILKURAREN ERABAKIAK**

1. (deialdiko 2. puntua) Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, petrolioaren prezioen jaitsierak azkenean kontsumitzaileek ordaintzen duten gasolinen prezioan berehala eta proportzio berdintsuan eragin dezan neurriak hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0642]

EA-NV eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

9/2015

"1. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Merkatu eta Lehia Batzordeari eta Lehiaren Euskal Agintaritzari eskatzen die erregaien sektorearen eta gasolindegietarako banaketa minoristaren jarraipen sakona egin dezatela, petrolioaren kostuaren jaitsieren et aigoeren aurrean prezioen aldaketak aztertze aldera eta merkatua gardenagoa izatea lortze aldera, haren bidez lortuko baita petrolioaren prezioen jaitsierak kontsumitzaileek azkenean ordaintzen duten gasolinen prezioan berehala eta proportzio berdintsuan eragitea.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Kontsumobideren bitartez, egin dezala azterlan bat kontsumitzaileen interesak babestearen inguruan, non orientabideak emango baitira preziorik merkeenak aurkitzeko eta, aldi berean, agerian utziko baita merkatuko prezioen arteko alde handia".

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO
EL DÍA 12 DE FEBRERO DE 2015**

1. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, en relación con la adopción de medidas para que la reducción de los precios del petróleo afecte, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores. [10\11\02\01\0642]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV y SV-ES.

9/2015

"1. El Parlamento Vasco insta a la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia, así como a la Autoridad Vasca de la Competencia, a que realicen un exhaustivo seguimiento del sector de carburantes y su distribución minorista en gasolineras, al efecto de analizar los deslizamientos de precios ante las bajadas y subidas del costo del petróleo y lograr que sea un mercado más transparente, en el que se consiga que la reducción de los precios del petróleo afecten, con la inmediatez y en proporción similar, al precio de las gasolinas que se paga finalmente por los consumidores.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a través de Kontsumobide, elabore un estudio en relación con la protección de los intereses de los consumidores, en el que se oriente cómo encontrar los precios más baratos, evidenciando a la vez los amplios márgenes comerciales".





2. (deialdiko 3. puntua) Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez pentsioen osagarriak aldatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0667]

Ezetsi egin da.

2. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, para la modificación de los complementos de pensiones a través de la RGI. [10\11\02\01\0667]

Rechazada.





3. (deialdiko 6. puntua) Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Serantesko tunelari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0650]

Ėzetsi egin da.

3. (punto 6 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, relativa al túnel del Serantes. [10\11\02\01\0650]

Rechazada.





4. (deialdiko 7. puntua) Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, Euskadiko ardi-sektoreko neurriei eta dinamizazioari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [10\11\02\01\0611]

EH Bildu, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

10/2015

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Bere eskuetan dituen bitarteko juridiko eta administratibo guztiak erabili ditzala Aldanondok esne-ekoizleekin duen zorra ahal bezain azkar ordaindu dezan, eta, aldi berean, kaltetuen eta beste gaztandegi batzuen arteko harreman komertzialak lagundu eta sustatu ditzala.
2. Ardi-sektore produktibora zuzendutako politikak aldatu ditzala, gaztandegi txiki eta ertainak sustatuz eta bideratzen dituen diru-laguntzen gaineko kontrol gehiago eginez.
3. Latxa ardiaren esne-ekoizpena ekoizturatu eta egituratzeko instituzio arteko lana eta lan sektoriala egin dezala, lehendik dagoen Latxa Esnea kooperatiba-elkartearen edo sortu daitezkeen beste batzuen inguruan eta transformazio txiki eta ertainaren inguruan, hala nola Artzai Gazta elkarte eta beste gaztandegi txiki batzuk.
4. Esne-ekoizle eta erosleen arteko kontratueta jasotako konpromisoak betetzen direla bermatzeko presio administratiboa egin dezala, esnea bezalako produktu galkorren ordainketak 30 egunera egin behar direla kontuan hartuta.
5. Ardi-esnearen ekoizpena babesteko neurri zehatzak sendotu ditzala, baita belaunaldi-aldaketarako ere, Landa Garapen Iraunkorreko Programaren barruan eta foru-aldundiekin bat etorritz.

4. (punto 7 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, referente a medidas y dinamización del sector ovino en la Comunidad Autónoma vasca. [10\11\02\01\0611]

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EH Bildu, SV-ES y PV-ETP.

10/2015

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que:

1. Utilice todos los medios jurídicos y administrativos a su alcance para que Aldanondo pague lo antes posible la deuda que tiene contraída con los productores de leche, y facilite e impulse las relaciones comerciales de los afectados con otras queserías.
2. Realice un cambio de políticas para el sector productivo de ovino potenciando las pequeñas y medianas queserías y realice un mayor control de las ayudas que destina.
3. Realice el trabajo interinstitucional y sectorial para estructurar y vertebrar la producción de leche de oveja latxa en torno a la existente Latxa Esnea Koop. Elk. u otras que pudieran crearse y la pequeña y mediana transformación como Artzai Gazta Elkarte y otras pequeñas queserías.
4. Ejercer la presión administrativa para garantizar el cumplimiento de los compromisos contractuales entre productores de leche y compradores, teniendo en cuenta que los productos perecederos como la leche se deben pagar en un plazo de 30 días.
5. De acuerdo con las diputaciones forales, y dentro del Programa de Desarrollo Rural Sostenible, refuerce las medidas de apoyo específico a las producciones ganaderas de leche de ovino, así como el relevo generacional".

